

MIGRAZIO ERDALDUNA HERRI EUSKALDUNETAN

Zergatik gerturatzen dira euskarara? Eta zergatik urrutiratu?

Migratzaile erdaldunek euskararekin sortzen duten harremanean aldagai askok eragiten dute, eta gainera, faktoreok pertsona beraren bizi zikloan alda daitezke. *Migrazio erdalduna herri euskaldunetan: euskararen inguruko bizipenak eta iritziak* ikerlanean udalerri euskaldunetan bizi eta euskara ikasi ez duten hemeretzi lagun elkarrizketatu dituzte. Egileak Enara Eizagirre, Edurne Urrestarazu eta Ekhi Zubiria dira eta UEMAren Iñaki Arregi beka irabazi dute lan horri esker. Ikerlanean, udalerrietako hizkuntza politikak diseinatzeko baliagarriak izan daitezkeen tresnak eta ideiak aurki daitezke.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANI BLANCO

Enara Eizagirre, Edurne Urrestarazu eta Ekhi Zubiria erdaldunengana hurbildu dira, zehazki esanda aztertu dute udalerri euskaldunetara 2005az geroztik iritsi diren eta jatorriz Euskal Herriatik kanpokoak diren herritar erdaldunek nolako harremana, bizipenak eta iritziak dituzten euskararekiko eta bizi diren herriarekiko. Ikerlana ez da lan kuantitatiboa, kualitatiboa baizik, eta hemeretzi herritarrei elkarrizketa sakonak egin dizkiete. Ikerketan, parte-hartzaileen esanen pasarte ugari irakur daitezke.

Elkarrizketatu guztiak erdaldunak dira, hau da, ez dira gai euskaraz aritzeko, nahiz eta hainbat urtez herri euskaldunetan bizitzearen poderioz eta batzuetan hizkuntza ikasten saiatu direlako, ulermen mailatxo bat baduten edo zerbait esateko gai diren.

Egileek euskararen erabilera altua duten eta azken urteetan etorkin kopuru esanguratsua jaso duten hamahiru herritako parte-hartzaileak aukeratu di-

tuzte: Azpeitia, Baztan, Berastegi, Dima, Etxarri-Aranatz, Igantzi, Ikaztegieta, Lekeitio, Mutriku, Muxika, Ondarroa, Oñati eta Oriokoak. Udalerri euskaldunak dira guztiak, eta horietako gehienak baita arnaguneak ere.

Hemeretzi herritarrek Argentina, Dominikar Errepublika, Espainia, Maroko, Nikaragua, Pakistan, Paraguai, Sardinia, Senegal eta Txinakoak dira.

ERDALDUNA BAINO, ERDALDUNAK

Irakurleak jakin nahiko du ea zein ondorio atera dituzten ikerlariak, ea erdaldunak zergatik erabakitzen duen euskarara hurbiltzea edo zein motiborengatik urruntzen den hizkuntzatik. Bada, ezinezkoa zaie laburpen bat egitea, izan ere, erdaldun denak zaku berean sartzerik ez dago, biografia eta bizipen desberdinak dituzte eta ez dira ari modu berean jokatzen hizkuntzarekiko harremanean. Are gehiago, elkarrizketatu duten bakoitzak, herri euskaldunetan bizi izandako urteetan, iritziak eta jarrerak aldatu ditu.

Dena dela, egileek, tentu handiz, euskararekiko gertutasunagatik eta hizkuntza ikasteko motibazioan dituzten antzekotasunei erreparatuta elkarrizketatuak hiru profiletan bildu dituzte: urrunak, beraien egoerarekin asebeteta sentitzen direnak eta aktibatuta daudenak. Egileek azpimarratu dute pertsona berak profil batetik besterako jauzia egin dezakeela eta horregatik *continuum* moduan irudikatu dituzte hiru profilak. Adibide bat jartzearen, elkarrizketatu batek esan dezake hasieran euskararekiko atxikimendurik ez zuela izan, ikasteko beharrik ez zuela sentitu antzemanda herritar guztiek gaztelaniaz bazekitela. Haurra izan du eta iritziz aldatu du. Euskaratik gertuago sentitzen da, haurrak ikasten duen hizkuntzarekiko jakin-mina piztu zaio eta euskara ikasten hastea erabaki du. Beste batek, berriz, esango du hainbat hilabetez euskara ikasten aritu zela euskarategian, baina orduz geroztik ez dela itzuli, eguneko ia ordu guztietan lan bat bestearen atzetik kateatzen duelako.





Ikerlanak jomugan hizkuntza profesionalak baldin baditu ere, hizkuntza kontzientzia duen edonork irakurtzekoa da. Hemeretzi herritarrek esandakoen pasarte ugari daude. Ikerlanaren izenburua idatzita, erraz aurki daiteke sarean 136 orrialdeko lana.

HARREMAN SAREEN GARRANTZIA

Euskararekiko sentitzen duten atxikimendua oso desberdina da, eta beraz, euskara ikasteko izan ditzaketen motibazioak ere bai. Motibazio horietan eragiten duten aldagaien artean daude adina, seme-alabak dituzten ala ez, zenbat hizkuntza dakizkiten eta iritsi zirenean gaztelania bazekiten ala ez. Beste multzo batean leudeke bizi diren herrian sortu dituzten harremanak: zenbat sare trinko sortzen dituzten herrian eta norekin, zertan pasatzen duten eguna, zein eremutan dabilen... Hirugarren zakuan leudeke etorkizunera begira egin dituzten aurreikuspenak, dauzkaten desirak eta intentzioak.

Egileek, jakinda elementu horiek guztiek eragiten dutela euskararekin sortzen dituzten harremanetan, ondorioztatu dute hemeretzi herritar horiengan aldagai batzuk argigarriagoak direla euskarara gerturatzeko izan dituzten arrazoiak ulertzeko. Aldagai horiek lau multzotan biltzen dira: elkarriketatuak euskal hiztunekin maila informalean edo mikrosozialean harreman sare esanguratsuak sortu izana; seme-alabak euskarazko irakaskuntzan aritzea; lan eremuan hobekuntzak izateko nahia edukitzea; eta etorkizunean herrian jarraituko duela irudikatzea.

Beraz, elkarriketatuen artean badi-ra gaztelania lehen hizkuntza dutenak eta ez dutenak, badi-ra Euskal Herrira etorritakoan hizkuntza hori bazekitenak eta ez zekitenak, badi-ra hizkuntza gutxitua lehen hizkuntza dutenak edo hizkuntza gutxituren bat hitz egiteko gai direnak, alegia, haien jatorrizko herrialdeetako hizkuntza nagusiaz gain berta-

Euskararekiko jarrera
ulertzeko bereziki faktore
argigarriak dira harreman
sare trinkoak, haurrak,
lan espektatibak eta
herrian gelditzeko asmoa

ko hizkuntza gutxitua hitz egiteko gai direnak, hala nola, sardiniera, kaxmiera, katalana, guaraniera edo jola. Bada, ezaugarri linguistiko batzuk ala besteak izan, lehen aipatu dugun euskararekiko gertutasunaren *continuum* horretan (urrun-asebeteta-aktibatuta) kokaleku

guztietan ageri dira herritar horiek, hasi euskara urrun sentitzen dutenetatik eta gaur egun euskara ikasteko motibazioa dutenera arte. Beraz, euskararekiko duten jarrera ulertzeko bereziki faktore argigarriak dira harreman sare trinkoak, haurrak, lan espektatibak eta herrian gelditzeko asmoa.

IKERLANA NORK IRAKURTZEKO DA?

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak emandako beka da eta egileek ikerlana egin zutenean udalerri euskaldunetako euskara teknikariak eta UEMAko teknikariak zituzten buruan, batez ere. Ikerlanaren bidez, profesional horiei kolektibo horrengana hurbiltzeko tresnak eskaintzea nahiko lukete, esku-hartze linguistikoak garatzeko ideiak har ditzaten. Dena den, egileak pozik lirateke teknikariez gain euskalgintzan lanean ari diren elkarrekin eta zuzenean hizkuntzarekin zerikusirik ez duten gizarteko elkarte eta erakundeetan ikerlanak tokia izango balu. Hain zuzen, bestelako irakurleak gogoan, testu akademiko soil batetik ihes egiteko ahalegina egin dutela adierazi digute, edonork irakurtzeko modukoa izan dadin. Nahia bete dutela esan daiteke. ●